

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

89/2020 Foru Agindua, ekainaren 19koa, zeinaren bidez behin-behineko izendapenak baimentzen diren Legutioko Udaleko idazkar-kontuhartzaile lanposturako, titularraren oporraldiagatik

Legutioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, María Ángeles Otaola Elortegui udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra oporretan ordezkatzeko.

Horregatik, proposatzen du ondoko funtzionario hauek behin-behinekoz izendatzea:

María Purificación Astondoa Ochoa de Echagüen: 2020ko uztailaren 13tik uztailaren 31ra bitartean (biak barne).

Aitziber Criado Goikoetxea andrea: 2020ko abuztuaren 3tik 7ra bitartean (biak barne), eta 2020ko irailaren 15etik 18ra bitartean (biak barne).

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ondoren aipatzen diren funtzionarioak behin-behinekoz izendatzea, Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezaten haren titularra oporregatik ez dagoenean:

María Purificación Astondoa Ochoa de Echagüen: 2020ko uztailaren 13tik uztailaren 31ra bitartean (biak barne).

Aitziber Criado Goikoetxea andrea: 2020ko abuztuaren 3tik 7ra bitartean (biak barne), eta 2020ko irailaren 15etik 18ra bitartean (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldian baino ez du indarrik.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Legutioko Udaleri eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakezu zuzenean Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 19a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA